

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko irailaren 8a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Leitza** • Gaur itzuliko dira etxera Leitza, Areson, Lekunberrin eta Zubietan zeuden Saharako umeak  
**Antonio Alustiza** • «Txakurrak entzuten ikas dezala da garrantzitsuen»

## Partzuergoen turismoa

Nafarroan turismoa sustatzeko sei partzuergo ditugu: Eder, Lizarreria, Erdialdea, Nafarroako Pirinioa, Bertiz eta Plazaola. Eta laster Zangozaldean beste bat sortuko dute. Erakunde berriak dira, baina ongi finkaturik daude dagoeneko.

Kalitatea, ekimen publiko eta pribatuen arteko

koordinazioa, eta baliabide turistiko berrien sortzea dute helburu. Eta, antza denez, turista gehiago erakartzea lortu dute.



• KRISTINA BERASAIN



• INAKI VERGARA



• MIKEL SAIZ



# Leitza • Bizikletek atseden hartuko dute

Gaur joango dira Leitza, Areso, Lekunberri eta Zubietako sahararrak

Saharako umeak noiz itzuliko zain geratuko dira gaurtik aurrera Leitza, Areso, Lekunberri eta Zubietako familietako kideak, uda azkar joan delako eta hemen pasatu dituzten bi hilabeteetan harreman estua sortu delako denen artean.



Saharako hurrek ordu franko igaro dituzte Leitzaiko igerilekuetan.

●EGUNKARIA

**J**UNKAL OTXOTORENA Saharako umeak ekartzeko antolatutako komisioko kideak esaten zuenez, esperientzia oso baikorra izan da ume hauek beren etxetan hartu dituzten familikoentzat: «Hasieran gogorra izan zen denentzat, baina behin jarri beharreko mugak edo baldintzak jarri eta gero, elkar ezagutzea izan zen garrantzitsuena, eta horrela ongi funtzionatu dugu».

Umeak gaur arratsaldean joanen dira Bilboraino, bertatik aterako baita etxeraino eramane dituen hegazkina. Baina, aurretik, 24 umeak eta beren begiraleek agurrak jaso dituzte. Asteazkenean, Nafarroaraino etorritako sahararrentzat festa bat antolatu zuten, eta ostegunean, Leitza azken agurra eman nahi izan zieten famili eta auzokideek. Egon diren denboran lagun asko egin dituzte gaztetxoek, eta

Otxotorenak aipatzen zuenez, «herriaren laguntza ere handia izan da, familietatik aparte jende askok parte hartu duelako egindako ekintzetan».

Baina gaurkoan, Sahararantz eramane dituen hegazkinean ez dira denak egonen, Aliñe Baserrian azken bi hilabeteetan izan duten neska bertan geldituko delako, hurrengo urtea hemen emateko. Dirudienez 16 urteko neska honek belarriko tinpanoa lehertua edo zulatua du, eta gurasoei baimena eskatu eta geroi hemen gelditzea lortu dute. Medikuek esan dutenez, sei hila-

bete beharrezkoak dira horrelako ebakuntza baterako prestatzeko, eta beste hainbeste nola ateratzen den ikusteko eta emaitzak aztertzeko. Beraz, egin beharreko eskaera, baimena eta bestelako paper guztiak ongi iristen badira, neska hau Leitza egonen da datorren urtea arte.

Leitzaldean Saharako 24 lagunak egon direnean, bestelako ebakuntza bat ere egin behar izan zioten begirale bati, harri bat azaldu zitzaionalako giltzurrunean. Eta Leitza Osasun etxea dezente bitatu behar izan dute umeek bizikletan egindako

zauriak egunero suertatzen zirelako. Beren pasioa hori omen zen, txirrindula hartu eta egun guztian herria zeharkatu —igerilekuan egoten ez zirenean, noski—. Leitza Udalak horrela erabakita, Saharako umeek sarrera doan zuten, eta eguraldi ona eginez gero hantxe ematen zituzten ordu gehienak, baita euri pixka bat ari zuenean ere. Beraz, gaurtik aurrera hutsune galanta sumatuko da Leitza inguruan, batez ere sukaldeetan, etxekoandreek ez dutelako hainbeste jan prestatu beharko.

→ Eli Belauntzarán

Lizarra

•  
Antzinako  
Musika Astea

ASTELEHENETIK OSTIralera Antzinako Musika Eskola egingen dute Lizarran, urtero legez. Asteazkenean zehar garai batean aditzen ziren musika tresnak ikusi eta entzun ahal izanen dira. Horretarako adituak diren Europako musikari, kantari eta taldeak etorriko dira Lizarrarat. «Hona etortzen diren musikari gehienek Gasteizen eta Logroñon egiten diren musika asteetan ere parte hartzen dute; egitaraua zabala eta oparoa izateaz gain, kalitatezkoa ere bada; izan ere, aurrekontuak partekatu, eta horrek kalitatea goratzen du», erran dute antolatzaileek.


Aurtengoa 31. aldia da, eta Johann Sebastian Bachen musika da nagusi egitarauan, bere heriotzaren 250. urteurrena baita. Bestetik, aurretik, aurreneko aldiz, kontzertu bat agertokiz aldatuko dute. Astelehenean Pablo Sarasate orkestra eta Julian Gaiarre abesbatza batera ariko dira Los Llanos zinematokietan Jean Philippe Rameauren *La princesa Navarra* interpretatzen.

Bertze lau kontzertuak San Miguel elizan egingen dituzte. Asteazkenean, L'ensemble Baroque de Limoges taldeak Bach, Telemann eta Buxtehude-ren lanak interpretatuko ditu Christophe Coinen zuzendaritzapean. Ortzegunean, Carlos Mena kontratenorea ariko da, eta ortziralean Sopkinson Smith laukote barrokoa. Azkenik, larunbatean, Musika Antigua Köln taldeak Bachen Branderburgoko Kontzertuak maisulana interpretatuko du.

→ Kristina Berasain

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



**N**on ote dira duela bi urte, zorioneko irail hartan, zabal eta ozen aireratu zituzten diskurtso ilusionagarri eta itxaropentsuak? Ezerezean. Zergatik bota dute zakarrontzira, zakarki bota ere, Lizarran eta Garazin nekez adostu eta hitzartutakoa? Ez naiz jabe zergatikoz, zuk bezala nik ere ez dakit eta. Bada akaso gutartean inor burutik sano dagoela zerbait ulertzen duenik ETAK uda honetan eragin dituen hainbeste sufrimendu, amorru eta giza eskubideen urraketa? Zinez saiatu naiz horren bila joaten, haren hitzak arretaz aditzen edo irakurtzen. Alferrik izan da, ordea, giza-

besbideraketarekin besterik ez baitut topo egin jardunean. Azkenik, botepronton datozkidan galderen artean, horra beste bat. Era bateko zein besteko minaren gainean —herioak batera eta bestera jo duelako uda honetan— posible ote da ororendako herri eta gizarte zibilizaturik eraikitzea? Ezezkoan gaude gehienok. Baiezkoan daude, berriz, sinesdun gogorrak, giza-sakrifizioaren izenean gazteluak airean eraikitzearen aldekoak, alegia. Eta hola dabil Euskal Herria, makur. Bi dira, nonbait, bi bide soilik omen dira aukeran guztiok beharturik urratu beharrekoak: PPrena eta ETarena. Bakoitzak

honelako zerbait dio funtsean: edo nirekin zatozte nik agintzen dudana ildotik, edo bestearen faborez jardungo duzue lanean, bestearen barrenek joanez gero.

Eta kito, ez omen dago beste zereginik: nirekin edo etsaiekin. Betiko paradigma manikeoa. Ertzetik ari dira beste batzuk orain —EAJ, EA, IU, ELA eta Elkari— beste bide bat urratu nahian. Desio bat besterik ez: ildoka dezatela bide hori, baina ilusio eta itxaropen hitzak gehiegi aipatu gabe; eskarmentuak erakutsita, ilusioa eta itxaropena uztarrezinak omen baitira lurralde honekin.

## Bideak

# Baztan • Mugarriak begiztatzen

Lapurdiko eta Nafarroa Behereko hamar herrirekin egiten du muga Baztanek

**Urtero bezala, Baztango Udaleko arduradunak abiatu dira Iparraldearekin dituzten mugak ikuskatzera. Orotara 84 mugarri daude inguruko mendi eta zelaietan. Iparraldeko herrietako arduradunek hitzemandako lekuetan itxoiten dute egunero.**



Baztango ordezkariak urtero ikuskatzen dituzte mugarriak, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko ordezkariekin batera. ● RAKEL GOÑI

**H**IRUMUGETATIK HASI-ta, Kintoan dagoen Baztan bentaraino 50 kmko muga dauka Baztanek Lapurdi eta Nafarroa Beherearekin. Hain zuzen ere, Sara, Senpere, Ainhoa, Ezpeleta, Itxaso, Bidarra, Baigorri, Banka, Aldude eta Urepeleko lurrekin elkartzen dute. XII. mende hasieran liskarrak sortu ziren lurra zeinenak ziren zehazteko. Abeltzainek mugaren alde batera eta bestera ibiltzen zituzten abereak. Hori dela eta, 1856an Frantziak eta Espainiak mugak finkatzeko ituna izenpetu zuten.

Urte hartan bertan mugarriak ezarri zituzten.

Mugarri batetik bestera ez dago neurri finkorik; batzuetan 200 metro daude bata bestetik, eta bestetan zortzi kmko distantzia egon daiteke. Gehienak harri gorriak dira, baina bada harrizko paretetan landutako mugarria ere. Mugak begiztatzen ere orduan hasi ziren. Zinegotziek toki jakin batean Iparraldeko ordezkariekin elkartu eta gosari eder baten

ondotik lanari ekiten zioten.

Egun, mugarriak ikuskatzea ekintza sinbolikoa da. Urte barruan bai mendiko zaindariak bai zinegotzi batzuek mugarrien egoera zein den ikusten dute, eta egun berezi hauetan informazioa besterik ez zaie ematen beste ordezkariak. Aurten astelehenean hasi zuten lana. 09:00etan, Sarako ordezkariak, Jean Aniozberhere eta Jean Battit Indart, Baztangoen zain zeuden

Berrueteko bentan. Sarakoe-kin batera, Pauetik iritsitako Jean Marc Tarrieu Frantziako mugarrien arduraduna zegoen. Bestalde, Baztandik Jose Antonio Bergara eta Remigio Lizasoain zinegotziak eta Julian Goñi zainzailea zeuden, Nafarroako Gobernuako Francisco Garraza arduradunarekin. "Duela gutxi norbaitek hautsitako zenbait mugarri konpondu ditugu; Zorribentako inguruan daudenak, eta, bestalde, norbaitek mugitu egin du Hirumugetatik hurbil zegoen beste bat", esan zuen Sarako alkateak. Hala, gauzak argituta, Baztango arduradunek Senperekoekin zuten hitzordua, 11:00etan. Goiza bukatzeko, Ainhoako zinegotziak 12:30etan egon ziren Pantarren bentan.

Asteazkenean, baztandarrek Ezpeleta, Itxaso eta Bidarraikoekin egon ziren, eta 75. mugarritik 85.era joan ziren.

Azkenik, mugen begiztatzea gaur bukatuko da, ibilbiderik neketsuenekin, Izpegitik hasita Kintoraino doazen mugarriekin. Hurrengo urtean, irail aldera, berriro elkartuko dira arduradunak mugen egoera ikuskatzeko.

→ Rakel Goñi



**herri aldizkariak**  
Edurne Elizondo

## Ezpeletako biperrak

Ezpeletako biperraren inguruan egin du **Herriak** erreportaia bat azken zenbakian, biperrari buruz liburu bat plazaratu berri dutela aitzakiatzat hartuz: «Merie Leonie Pocorena Gure Aterbekoak, Maixan Agerre Lapitzakoak, Peuskinako Jeanne Bessonartek eta Elizaldeko Jeanne Bordak, besteak beste, markatua dute Ezpeletako Biperraren kultura. Alabaina hitz hori dela egokiena badirudi ontsa so egiten hasi eta zein den biper hori berezia, ez baita berez horrelakoa baizik eta lekuko jendeak, guziz emazteak denbora luzez lantu dutelako. Herriak izendatzen dituen andere horiek betidanik ezagu-

tu eta lantu dute biperra. Joan den ekainean A. O. C. sormarka ukan baitu Ezpeletako biperrak, hori zor dio andere horien jakintza eta esperientziari. Sormarka hori hedatua da hamar herritara Ezpeleta inguruan eta 54 laborarik osatzen dute Ezpeletako biperraren sindikatua. Honek nahi izan du sormarka horren ezagutarazteko liburu bat egin».

Sindikatuako presidenteorde Filipe Martinonekin mintzatu da **Herria** liburu horren inguruan, eta ondokoak dira hark errandakoak: «Duela 50 urte nola zen eta nork egiten zuen erakusten du eta geroztik nolako bidea egin duen.

Gauza bat ederra lehengo biper egileen argazkiak hor dituzu. Gero ikusten duzu oraiko biperra nola egiten den hazitik haste: nola landatzen den, nola pusatzen den. Eman da biper bestaren historia. Sindikatuan ba gira 55 laborari eta ardietsi berria dugun sormarkaren defendiatzeko muntatuak gira. Horien artean badituzu 30 beste mozkinen gainerat hori egiten dutenak. Egia erran arras ontsa joaiten da biperra ardi hazkuntzarekin: ardi lan gorrria duzu negu minean eta primaderan, biperra aldiz agorrilean hasten da: orai gira biltzen hasten eta sasoiak irauten du azaro artio».



**urdai  
aren  
mintzoa**

Xabier Larraburu

## Bekatua iratzartzen

Lehegoan paseatzen nenbilen Iruñeko kaleetan eta, sinetsiezadazue, nire burutazioak gardenak ziren, leunak, santuak. Ez dakit bada, dagoeneko sumatzen ziren udazkeneko eguraldiaren aldaketaz edo arituko nintzen, edo nire txirindulak behar duen konponketaz. Ikusten duzuenek, pixka bat ume baten arimarekin paseatzen ari nintzen, gurpil berriak amesten, lasai askoan. Sarasate pasealekura ailegatu nintzen arte. Han sartu eta segituan ohartu nintzen Mormoiaren eguna zela. Mormoiak, badakizue, hortik ibiltzen diren bikote xelebre horiek dira: gazte ilehori, luze eta liburu batekin ibiltzen direnak, ebangelioa predikatzen. (Hemen digresio txiki bat sartu nahi nuke. Konta nezake, esate baterako, «Ebangelio» hitzak «berri onen eramailea» esan nahi duela, eta, adibide bezala, konta nezake historia klasikoan artzain batek marmozko mendi bat aurkitu eta honen berri herrian eman zenean «Ebangelio» izena eman ziotela artzainari. Harria ona baitzen, tenplu berria egiteko adinakoa.) Bada, han ziren mormoiak beren berri onak zabaldu nahian. Ni bezala igarotzen zen jendea gelditzen eta beste. Beraiekin topo egiterik ez nuen nahi noski... baina, bat-batean, zur eta lur gelditu nintzen. Niregana hurbiltzen ari zen mormoia ez zen gizezkoa, emakumea baizik. Neska bat. Gaztea eta abar. Eta abar horretan sar itzazue hoberena eta kantitate handietan. Eta soberan sartu duzuela pentsatzen baduzue eta ezinezkoa dela horrelakorik existitzea... baietz esango dizuet!, han zegoela! Eta niregana hurbiltzen ari zela eguzkiari kometak hurbiltzen zaizkion bezala: modu saihestezinean! Nire arima zeharo aldatu zen orduantxe. Txirindularen gurpil berriak artxibatu eta burmuinaren azkeneko gelaren atea, gela ilun eta handia, ireki nuen. Ate horretatik irudi handiak, berunezkoak atera ziren, umeek oraindik ere ezagutzeke dituzten gauzak! Baldin eta metaforetan trebatuak ez bazaudete: Sexuaz ari naiz! Sexua! Goitik behera estali ninduen! Neska ni agurtu eta bost minutuz edo aritu zen. Ez dakit zer esan zuen ere. Agurtu nuenetik txirindularen gurpil berriak berriz ere artxibotik atera nituen arte, lau, bost ordu igaro ziren. Erlijioak, beraz, arimaren atea irekitzen duela egia da.

# Turismoa azkartzeko partzuergoak

Nafarroan sei partzuergo turistiko daude, eta laster, Zangozaldean, beste bat sortuko dute

**Eder, Erdialdea, Lizarreria, Nafarroako Pirinioak, Bertiz eta Plazaola. Partzuergo turistikoak erakunde berriak dira, baina ongi finkaturik daude dagoeneko. Kalitatea, ekimen publikoen eta pribatuen arteko koordinazioa eta baliabide turistiko berrien sortzea dute helburu. Eta, antza denez, turista gehiago erakartzea erdietsi dute.**

**B**ERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOA dugu zaharrena; 1992an sortu zuten. Orduetik, Bertizko parkera eginiko bisiten kopurua %40 igo da, eta bertan establezimenduak %80 ugariatu dira. Datu bat besterik ez da, baina, dirudenez, partzuergoen lana eraginkorra da inguru bateko turismo industria azkartzeko.

Toki erakundeek, sindikatuek, elkargoek eta enpresari eta merkatarik elkarrekin, pribatu zein publikoek, osatzen dituzte partzuergoak. Dena den, badago alderik partzuergoen artean. Erriberako Eder eta Erdialdekoa garapen integraleko partzuergoak dira. «Ez gara beste partzuergoak bezala», erran du Erdialdeko Lorenzo Garcia garapen agenteak. «Guk ez ditugu egiturak bikoizten. Garapen integraleko partzuergo gara, ez partzuergo turistikoa. Turismoa lantzen dugu, baina baita beste mila gauza ere». Beste lau partzuergoek

soilik turismoa lantzen dute, landa garapenerako baliabide gisa.

Bisitariak erakartzea erran nahi du turismoak. Eta horretarako makina bat gauza egiten dituzte partzuergoek: nazioarteko hainbat feriatan parte hartzen dute (Fiturren, erraterako), euren liburuxkoak argitaratzen dituzte, kultur kanpaina eta ekitaldiak abiatzen dituzte, eta Cultur programako ekitaldien antolaketa laguntzen dute.

## Cultur programa

Nafarroako Gobernuaren babesean, partzuergoetako herrietan hainbat kultur ekitaldi egin dira udan, hala nola musikaz lagunduriko ardo dastaketak, organo konzertuak elizetan, dantza emanaldiak edota eskulangintzako erakusketak. Partzuergoak ekitaldi horien guzian antolaketaz arduratu dira. Lizarrerriko partzuergoaren

arduradun Cristina Roaren aburuz, Cultur oso finkaturik dago: «Ekitaldiak kalitatekoak dira, erakargarriak. Lizarrerrian izan duten erantzuna hagitza ona izan da. Eskaintza turistikoaren osagarri da Cultur». Ildo berean, Eder partzuergoko langile Sonia Sanchezen iritziz, turistak bertako ondareak eta Cultur programako ekitaldiek erakarrira hurbildu dira Erriberara.

Baina denak ez dira Culturekin kontent. «Turistek aisiako ekitaldiak eskaintzea da Cultur programaren helburua», esplikatu du Plazaola partzuergoko kudeatzaile Maitena Ezkutarik. «Mendialdeko partzuergoak ez gaude horrekin erabat ados. Pentsatzen dugu herrietan ez garelako turistomotik bakarrik bizitzen, eta herritarrek kontuan izan behar direla gehiago. Espero dugu heldu den urtean ekitaldiak ez antolatzeko, baizik eta turistak bertara eraman, baita herritarrei begira ere».

## Izar turistikoak eta beste

Normalean, partzuergoek turista gehien erakartzen duen izar turistikoa dute. Partzuergoek elementu horiek promozionatzen dituzte batez ere, baina besteak ez dituzte ahazten. Eder partzuergoak, Cultur ekitaldiez gain, udan ez dute beste deus berezirik prestatu, baina esku artean dute Bardeako eta beste herrietako bidezidorren plana. «Heldu den hilabetean lehen hogei bidezidorrei ekinen diegu, eta gero beste bost bidezidor prestatuko ditugu, horietako batzuk mendiko bizikletakoak», azaldu du Sonia Sanchezek.

Erriberriko gaztelutik 1999an 120 mila lagun pasatu ziren. Erdialdeko garapen partzuergoak agente Lorenzo Garcia dioenez, «kontua da sare bat sortzea, Erriberriko datozenek Erdialde guzian bisita

dezaten». Hala, beste, Mirandan landa giroko jaia egin, eta Berbintzan asteburu honetaz aritzen diren ekologikoaren jaia eginen da.

Lizarrerrian turistakargarri nagusia Donejakue Bidea da. Dena dela, partzuergoko arduradun Cristina Roak inguruko dibertsitate handiaren inguruan du: «Trantsizio zona, mendialdeko Erribera dugu. Ondare arkitektonikoa, naturala eta kulturala. Eta bertako programak». Partzuergoak egin dituen gauzetan, aipatu behar da Irantzuko monasterioaren turismo informazioarako bulegoaren zuzendaritza esperimendu gisa. Jendearatzen bada, mantuko dute. Besteak, berrak seinalizatzea eta abelbidea promozioa aztertzen ari dira.

**Erriberriko gaztelutik 1999an 120 mila lagun pasatu ziren. Erdialdeko garapen partzuergoak agente Lorenzo Garcia dioenez, «kontua da sare bat sortzea, Erriberriko datozenek Erdialde guzian bisita dezaten».**

Berri nola ez, parkeak erakartzen du turista gehiago. Baina partzuergoak katalaia Nora Eneterrearekin, saiatzen dira argarri bakarra ez izateko ditugu leizeak. Urdai eta Zugarramurdiko Zubietako errota. In film laburren lehian ari dira partzuergoak. Eta badituzte besterik batzuk oraita egin ez dituztenak.

Errahar da 1996an Nafarro Mendialdeko Marroa izeneko «megapartzuergo» sortu zutela Bertiz, Plazaola eta Pirinioak partzuergoek. «Promozio aldeko gauzak gutitzeko egin genuen», dio Eneterreak. «Madrilera edo Bartzelonara joan zarenean Bertiz edo Plazaola partzuergoaren izenarekin jendeak ez daki sobera on non kokatu. Izen berri honekin errazaten da».

Nafarroako Pirinio partzuergo teknika Fermin Claveriak daki turistak paisajeak erakarrira erakartzen direla inguru

horretara. «Baina guk gure ondare kulturala ere nabarmendu nahi dugu», dio Horretarako bisita gidatuak antolatzen dituzte.

Azkenik, Plazaola partzuergoan izen bereko bide berdea dute turistak erakartzeko. «Bide horrek zati asko ditu», komentatu du Plazaolako kudeatzaile Maitena Ezkutarik. «Aurten inauguratu ditugu lehenbiziko kilometroak, eta oraindik tramitazioekin gaude bigarren faseari ekiten. Dena ongi ateratzen bada, 2002. urterako 35 bat kilometro izan ditzakegu egoera onean».


## Udaren balantzea

Nahiz eta uda oraindik ez den bukatu, partzuergoek, turismo aldetik, udaren balantzea egiteko eskatu die NAFARKARIAK. Ederreko Sanchezek balantze positiboa egin du. «urtetik urtera gero eta turista kopurua gehiago datorrelako». Erdialdeko Garcia dio bere ingurura turista gehiago etorri direla aurten: «Uztaila ez zen sobera ona izan, baina abuztuko aurreikuspenak aise gainditu ditugu. Atzetik partzuergoaren eta hainbat elkarrener lana dago». Lizarrerriko Roak dioenez, «ikusten da bisitarien kopuruak gora egin duela azken urteetan». Gauza bera dio Bertizko Eneterreak: «Abuztuan dauzkagun ohe guzikiak bete dira, ohi denez. Eta uztaila eta iraila ere hobetuz doaz».

Pirinioetako Claveriak onartu du denboraldia berandu hasi zela: «Hasieran ez zen jende asko etortzen. Baina gero turista anitz etorri da». Azkenik, Plazaola partzuergo Ezkutarik erran du uda eguraldi aldean aldakorra izan dela eta horrek izan duela eraginik turistak kopuruan. «Uztailako aste batzuk nahiko txarrak izan ziren. Abuztua da fuertena beti. Uztailan ere mugimendu handia izan ohi da, baina aurten goa suabeagoa izan da». Heldu den urtean beste partzuergo bat izanen dugu udaren balantzea egiteko, Zangozaldekoa, zein hilaren bigarren erdialdean sortuko omen den.

Asier Azpilikueta

EGUNKARIA



## Nafarroako pirinioa

Sortze data: 1994ko abendua  
Lan eremua: Luzaidetik Iruñerriera, eta Erriberriko Esterribarra  
Bazkideak: 40 erakunde publiko eta 185 pribatu  
Erakargarri nagusia: Pirinioak




## Bertiz

Sortze data: 1992ko abendua  
Lan eremua: Urdazubi, Zugarramurdi, Baztan, Bortzirriak, Malerreka eta Bertizarana  
Bazkideak: 19 udal eta 300 bat pribatu  
Erakargarri nagusia: Bertizko jaureria

## Eder

Sortze data: 1994ko martxo  
Lan eremua: Erribera  
Bazkideak: 36 udal eta 7 erkunde edo erakunde  
Erakargarri nagusia: Bardea




## Lizarreria

Sortze data: 1995ko martxo  
Lan eremua: Lizarreria  
Bazkideak: 75 bat, pribatu publiko  
Erakargarri nagusia: Donejakue bidea

## Erdialdea

Sortze data: 1996ko abendua  
Lan eremua: Erdialdea  
Bazkideak: 11 udal eta 9 erkunde edo erakunde  
Erakargarri nagusia: Erriberriko gaztelua




KRISTINA BERASAIN



## Plazaola

Sortze data: 1994ko maiatza  
Lan eremua: Iruñe, Larraun, Lekunberri, Leitza eta Areso, Araitz, Betelu, Ultzama, Basaburua, Imotz  
Bazkideak: 35 udal eta 100 bat pribatu  
Erakargarri nagusia: Plazaolako bide berdea



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskal eskolaren  
hasi-masiak: Iturriaga (II)

Ikasturte berri bat hasia den honetan, hona hemen euskal eskolaren historiaurrearen pasarte interesgarria, Iturriaga hernaniarrak XIX. mendeko lehenbiziko erdialdean gorpuztu zuena hain zuzen ere.



Pasa den astean Iturriagak Hernanin sortu eskolaren ingurukoak baita bere ikuspuntu pedagogikoetatik abiatuta izkiriatu zituen bi liburuen gainekoak izan genituen izkiriagai. Iturriagaren hirugarren lana, berriz, *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos* izan zen, 1842an ageritua, orduan bai, Donostiako Barojarenean. Alegien liburua nabariagoa da Iturriagak zuen helburu literarioa, ez aurrekoetan bezala, eta, hortaz, bertsoz emanda taxutu zituen bere animalien ipuinak. Hauxe dateke, agian, Iturriagaren lanik ezagunena, edizio gehien pairatu duena halaber. Alta, ez dira alegiak bakarrik; izan ere, Samaniegoren 55 ipuinen itzulpenarekin batera, Bergiliren lehenbiziko eta hirugarren eglogak, San Ignazioaren martxa eta ezpata-dantzaren hitzak baitaude liburua jasorik.

Eskolaren gaira itzul gaitzen baina. Iturriagaren asmo pedagogikoak ez zetozen batera XIX. mendean zegoen errealitatearekin; are gutxiago, gainera, euskararen puntuan. Jada ahitua zen argien mendean alfabetizazio portzentaiak ez ziren ezertan handitu, ez eta hurrik eman ere, eta zenbait kasutan ere nabarmen txipitu ziren; izan ere, populazioaren hazkunde eta hezkuntzarena ez baitziren proportzionalak izaten. Bere bigarren lanerako taxutu zuen sarreran bere asmo pedagogikoen nondik norakoak eskaini zizkigun Iturriagak, baita euskararen inguruan zuen jizkua: *«Es muy de extrañar que siendo el romance la lengua de nuestro gobierno, y cuando los señores maestros de primeras letras encargados de enseñarleselo a sus discípulos, por sernos a los bascongados necesario e indispensable a unos, útil*

*a otros y conveniente a todos, no se hayan proporcionado medios auxiliares, que faciliten su enseñanza. Sin embargo son estos tanto más necesarios cuanto que el genio del romance es diametralmente opuesto al del bascuence».* Euskaraz ere honela zioen: «Eraqueria da uste izatea iscuntza bat bestea baño gaitzagoa dala. Eusqueran ez du beste cer esanic autsez betea beti vici izatea besteric».

Azken buruan, Iturriaga beldurrez zegoen ea bere liburua onartuko zituztenetz. Arazoak izan zituen jada ideologia mailan, baina euskarak, Gipuzkoa batean inokuoagoztat jo zitekeen gauza izanik ere, bere zama ideologikoa ere bazekarren berekin nonbait. Lehenbiziko liburua argitara eman baino lehen, jada Hernaniko eskolan erabilia izan zen metodo hura, esperientziaren lekukotasunarekin arrazoi erantzunezina aurkeztu ahal izateko Probintziari. Helburua zen Madrildik pasatu gabe beharreko baimenak eta babesak erdieste; haatik, Iturriaga nahikoa ezezkor agertzen zuen bere burua: *«Bastará luego que la Diputación o la Provincia recomiende a los pueblos su uso, para que se introduzca en las escuelas y lograremos nuestro objetivo sin necesidad de recurrir a la Junta de Inspección de Madrid, donde puede haber enemigos de nuestra lengua, y aquí enemigos de otra especie en la junta de inspección del país».*

Bestaldetik ere, eta esan bezala, Iturriagak bere eskolan erabiltzen zituen metodo pedagogiko berriak ez ziren guztien gustukoak, ez eta Hernanin nola Donostian egiten ziren tertulie-

tan parte hartzen zutenena ere. Hori dela eta, 1822an Hernanin aurkeztu salaketa batean zeuden izenetako bat dugu Iturriagarena: *«En una palabra, y sin pasión, éste ha echado a perder a todos con su viciada y falsa filosofía, por cuanto su maestro seductor los tiene imbuidos en la falsa y perniciosa doctrina del infame Voltaire y de los protestantes».* Hori dela eta, 1823az geroztik, Hernaniko ikastetxea itxi behar izan zuen, eta lehenbiziko karlistada bukatu zela, ihe-sean joan zen Iturriaga, lehenbizi Hondarririra eta Zestoara, eta geroago, Lapurdiko Milafrangan zegoen Larralde gaztelura, Arkaingotzeko markisaren babesera. Iturriaga ez zen 1840ra arte berriz ere Hernaniratu, baina orduan ere arazoak oro ez zeuden guztiz jabalduta. Lehenagoko etsaiekin hartzara topo egin zuela, haien amorrazioa arragoritu zen neurritz gain; alabaina, haiek berek Iruñeko apezpiquari helarazi zioten ohartxo haserretuan Iturriagak gotzainaren babesa zeukala atzeman daiteke, garaiak, hagitz izukaizki ez bada ere, aldatzen hasiak zirelako seinale: *«Se ha presentado aquí ese hereje consumado con el desearo que acostumbra los herejes, y según parece con todas las licencias de su Ilma. para predicar y confesar».*



## etorri ahalean

Patziku Perurena



## Oroimenaz bestekoaz

A spaldiko partez, denbora pasa, bueltaxka bat eman dut mendi aldera. Lau bat orduko bidean ibili, eta apenas oroitzen dudan ezer, lehen ikusitako harri, iturri, ataka, bordaxar, zubi, arbola, belar, pizti, xomorro eta mila xokoren irudi nahastu batzuk ez badira. Festa bete betean ari du Leitzan, eta mendi aldera hartu beharrean kale aldera hartu izan banu, seguru naiz neure oroimena askoz ere xeheutuago eta kargatuago ekarriko nuela bueltan etxera. Halere, nere zentzuek halako poz eta indar berri bat dakarte menditik, agian, desoroitze eder honi esker. Zenbat gauza eder ikusi ote dute ene begiek? Zenbat doinu eder entzun ene belarriek, mendiko bueltaxka honetan? Inoiz ez du jakinen inork, ez eta nik neuk ere, halere ohartzen naiz nere oroimen xehe guziak baino indar garbiagoa eman diela nere zentzuei desoroitze nahasi honek.

Behiala «sobre la marchan» leitutako pasarte batez oroitu naiz: *«elur zaplada batzuk kotxeko parabisaren kristalean gelditu, eta hainen abudo urtzen dira, non zalantza sortzen duten... oroimenak atzeratu bezala egiten ditu; zer ikusiko ote genuke oroimenik gabe?, behar bada, elur zaplada batean ezin konta ahala guziak; zenbat eta gehiago ikusi orduan eta gutxiago ikusten da».* Baina zenbat eta gehiago ikusi orduan eta gehiago oroitzen da, eta gero eta zailago da ikusmena berritzen, ikusten dugulakoan begiratu, oroitu, besterik ez baitugu egiten.

Hara zer nioen ni izan nintzeneko apo tipi hark ere: *«Gizonaren zorigaitzik haundiena oroimendun jaio izana da. Gogoan hartzen dena ez da benazkoa izaten. Burua eta bihotza tipiegiak eta xikinegiak dira; zentzuen ondar xixtrin*

*batzuk baizik ez dituzte berenganatzen. Benetan bizi ohi dena, ahazten den hura izaten da, edo hobeki esan, sekula gogoan hartzen ez den hura».*

Bai, buruan hartzen diren gauzak oro, badirudi harrigarriak, hunkigarriak, nazkagarriak edo hobenean patxada naturaletik at gertatuak izan ohi direla, nork bere baitako harmonia galtzean gogotan hartzen dituenak. Kontuak hola, badirudi bere bizitzako hondakinek osatzen dutela pertsona bakoitzaren memoria. Eta arteak edo beste edozein adierazpidek, oroimeneko parte xume baino ez denez, bizitzako azken hondarrak besterik ezin adieraz litzake.

Bizitza da, esperientzia da, maisurik hoberena esan ohi dugu oharkabean. Baina esperientzia, bere izatez, oroitze hutsa da, errepikatze hutsa, eta zinez bizi izateak ez du inolako maisurik onartzen, zinez bizi nahi duenak taigabeko aprendiz inorante izan beharra dauka derrior. Horratx aristoteliko, eskolastiko, erretoriko, edo nahinolako «konputologo modernillo» batek sekula komprentituko ez digun gauza.

Borgesena «Funes el memorioso» ipuinak oroimenaz egiten duen irakaspen motzaz hala dio Eduardok: *«ezberdintasunak desegiten ditu oroimenak, eta alderaezin guziak berdintzen. Matsondo baten adaxkak aihenak, mordoak eta ale guziak behaldi batez sumatzea, ez da gauza ugaria eta nahasia bakarrik, oroitzeaz guziz besteko gertaera baizik; matsondoa dela jakite hutsak, babestu egiten baikaitu sumaren puskarik haundiskonatik».*

Gizadia barrena arrasto bihurri bat egiten balitz! Inor gutxi azalduko litzake bizitzaren alderdian gauzak sumatzen, ikusten; kasik jende guzia oroitzen, erakusten. Hor hasten da ene hautua.

## Ziria

• Motxorrosolo •

## Gorrotoa lege

Honek ez du atzera bueltarik. Bazterrak harrotu dituzte. Ez dute arrazoirik behar. Haiek dira arrazoi bakarra, eta besteak makurrarazten lotsarik ez. «Printzea» izan gabe dohain horien jabe denak jaso berri du haien abisua. Anonimoa baliatu dute. «Gorrotoa lege» martxan jarri zutenak egun ere nagusi.

# Antonio Alustiza

ARTZAINA

## «Txakurrak entzuten ikas dezala da garrantzitsuen»

Antonio Alustiza aresotarrak eta *Jai* bere txakurrak iragan igandean Uharte-Arakilen egin zen artzain txakurren lehiaketako txapela eraman zuten. Txapelketetarako ez omen dute prestaketa berezirik egiten, eta, Alustizak dioenez, txakurrak artzainaren aginduak ongi entzuten ikastea da arrakastarako gakoa.

ANTONIO ALUSTIZAK Leitzako lantegitik aterakoan duen afizio bakarra ardiak dira, eta duen artaldearekin, 80 bat ardirekin pasatzen ditu neguko ordu gehienak.

■ **Irabazi eta gero, pozik egongo zara Uhartan egingako lanarekin.**

Pozik, pozik bai. Irabaztea edozeini gustatzen zaio, galtzea baino gehiago, baina egia esan behar badut, Uhartan egingako lanarekin ez nago batere gustura. Ardiak oso biziak ziren, eta sekulako zintzarri hotsa zegoen, eta txakurra, nirea behintzat, oso urduri jartzen da holakoetan; gainera, hainbeste jende egonik, ez zen lasaitu bukatu arte.

■ **Froga aurrera zihon heinean, irabazteko aukerak bazenituela pentsatu al zenuen?**

Han, bukatu arte ezin da esan. Gainera, gorabehera asko egon daitezke froga batetik bestera, eta nahiz eta zu ongi aritu, txakurrak ez baldin badu egin beharrekoa egiten, konparaziora, ardiak sartzen edo banderinak behar den bezala pasatzen, ez dizkizute puntuak ematen, eta azken horiek agintzen dute. Epailiek ez diote zure lanari begiratzen. Txakurra hirugarren frogan ongi aritu zen, bandera guztiak ongi pasatu zituen, ez zuen bat ere oker pasatu; eta ni ere gustura. Baina aurrekoan, oso gaizki egin genuen, presaka eta urduri; gaizki.

■ **Holakoetan zorteak laguntzen al du?**

Bai, dexente. *Jai* azken fro-

ga arte ez zen lasaitu, ez zen gustura ibili. Jende tartean ibiltzera ez dago ohituta, eta ardiak ere oso biziak ziren, eta zeuzkaten zintzarriek hots handiegia ateratzen zuten. Eta *Jai*-k ez du horrela lan egiten. Horregatik kosta zitzaion ederki lasaitzea, eta bukaera arte ez zuen dakiena erakutsi. Baina, azkenean, zorte pixka batekin, irabazi genuen. Aldiz, Leitzako Josetxo Billabonak lan handia egin zuen, eta ongi, gainera, baina laugarren postuan sailkatu zen, hirugarrenak zorte asko izan zuelako. Gauzak horrela izaten dira; azkenean puntuak erabakitzen dute zein izan den irabazlea, nahiz eta horrek ez erakutsi nork egin duen lan onena.

■ **Euskal Herriko Txapelketa hil honen 17an izanen da, Mañarian. Hasi al zarete huraprestatzen?**

Beno, gu egia esan ez gara honetarako bereziki prestatzen. Urte osoan txakurra nirekin eramaten dut ardi-tara, eta han ikasi du dakiena, lanean. Abuztuaren hasieran, belaze batean makil batzuk jarri banderinen gisara eta han pixka bat ibili. Baina, bestela, ez dugu inolako prestaketa berezirik egiten. Txakurrari entzuten erakutsi behar zaio, zure aginduak betetzen esaten dituzunean, eta esan bezala. Hori lortzen baduzu, entzuten ikastea, orduan bai egin dezakeela lan polita edozein tokitan. Txapelketetan badakizu maila handia dagoela. Akats txikiak ere puntu asko kentzen dizkizu, eta



● MIKEL SAIZ

### soslaia

Orain dela hamalau bat urte hasi zen Antonio Alustiza Nafarroako Artzain Txakur txapelketan parte hartzen, eta orduz geroztik, urtero hantxe izan da bere txakurrekin. Irabazi ere irabazi du. *Jai* txakurrarekin, gainera, bi aldiz, eta, dioenez, txapelketarako izan duen txakurretatik biziena da. Berarekin lortu ditu sari garrantzitsuenak: Abadiñon, Euskal Herriko txapelketan, bosgarren postua lortu zuten, eta Oñatin, Nazioartekoan, hirugarren sailkatu ziren.

Aurten, Antonio Alustizak Uharte Arakilen jokatu den Nafarroako Artzain txakur Txapelketako lehen txapela jantzi du, eta *Jai* bere txakurrari arrazako txakurraren bigarren saria eman zioten. Orain, hil honen 17an, Bizkaiko Mañaria herrian egingen den Euskal Herrikoan parte hartuko dute.

«Egia esan, ez gara txapelketetarako bereziki prestatzen. Urte osoan txakurra nirekin eramaten dut ardi-tara, eta han ikasi du dakiena, lanean»

ez daukazu aukera gero irabazteko. Abadiñon, nire lehenengo txapelketan, Nafarroakoetatik aparte, oso urduri nengoen, baina bosgarren izan ginen. Eta Oñatin, Nazioarteko txapelketan, hirugarren postuan gelditu ginen, eta orduan ikusi nuen besteek egiten zutena egiteko gai ginela gu ere. Sekulako fama baitute hara joaten diren artzainak. Nik, ordura arte, horrela nuen entzuna, eta horrek ikaratzten ninduen; gainera, ez nuen inor ezagutzen, entzutez bai baina... Hori bai, behin pasatu eta gero, gauzak ongi atera

ziren, eta pozik bueltatu ginen etxera.

■ **Orduan, Mañarikoan ez duzue urduritasunik pasatuko.**

Bai, bai. Hara jende asko joaten da, eta, gainera, Uharte-ko kanpan behetik gora aritzen gara beti, baina Euskal Herrikoan urtero aldatzen dute artzainaren posizioa. Gainera, ez dakizu nolako izango den belazea, urtetik urtera aldatzen baitute txapelketako herria; ez dakizu zelaia duen edo sekulako aldapa duen belaze batean ariko garen. Hara joan arte ez dakizu. Eguraldiak ere badu zeresanik. Txa-

rrarekin jende gutxiago joaten da, eta tokatu izan zaigu Nafarroakoan sekulako euri jasa botatzen aritzea, eta gu hantxe, ahal zena egiten, txakurrak ere alde egin nahi zuelako. Baina orain denak ezagutzen dugu elkar gutxi gorabehera, eta, beno, ikusiko dugu zer ateratzen den, han irabaztea zaila baita.

→ Eli Belauntzarán

## MOSKI JATOR ERTAROAN

Aurkikuntza Miresgarria



## Nafar Kronika

Pello Argiñarena

### Hitz hits

**E**TArekin. ETArekin ez. ETArekin ez dugu hitz eginen. ETA gaitzesten ez dutenak. ETA gaitzesten ez dutenekin ez dugu hitz eginen. ETA gaitzesten ez dutenekin hitz egin dutenak. ETA gaitzesten ez dutenekin hitz egin dutenekin ez dugu hitz eginen. ETA gaitzesten ez dutenekin hitz egin dutenekin hitz egin behar dela esan dutenak lehen ez zela hitz egin behar esaten zuten. ETA gaitzesten ez dutenekin hitz egin dutenekin orain hitz egin behar dela esan dutenekin hitz egin behar dugu, lehen bezala besteekin ez dezaten hitz egin. Betiere, azken hitza gure Gobernuaren esku dago.

ETA. ETaren hitza. ETaren hitza aitzindaria izan da beti. ETaren hitza eta ekintzak. ETaren hitza eta ekintzak gaitzestea. ETaren hitza eta ekintzak gaitzestea ez da konponbidea. ETaren hitzaren eta ekintzen gainetik abertzaleen artean eraikuntza nazionalaz hitz egin behar dugu. Betiere, azken hitza Euskal Herriarena da.

ETA. ETaren ekimena. ETaren ekimenak ez du zentzurik. ETaren ekintzak gaitzesten ditugu. ETak behin betiko su-etena iragarri beharko luke. ETaren ekintzek kalte besterik ez diote egiten Euskal Herriari. ETaren ekimena baztertzen ez dutenekin hitz egin behar da. ETAK desagertu egin behar du eta, era berean, alderdi guztien arteko elkarrizketa zabaldu behar da. ETaren mehatxurik gabe, Euskal Herriko bizilagunek euren etorkizunaz hitz egin behar dute. ETaren aitzakiarik gabe Gobernuak herritarrek erabakitakoa onartu behar du. Betiere, azken hitza herritar gutziona da.

Hitza. Hitz aspertua. Hitz eta pitz. Hitz gurutzatu gehiegi hedabideen bitartez. Behin eta berriro errepikatzen diren gaitzespen hitz joko ezagunak. Hitzari helitzeko garaia da. Hitzak behar bezala neurtzeko tenorea. Behar izanez gero, ezkutuan hitz egiteko aukera bilatu behar da. Ondoren, adostutakoaz hitza eman eta hitza bete. Bitartean, hitzik ez atera, mesedez. Hitz hits.

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Zangoza:** 19:00etan, eta igandean, 20:00etan, Zangoza Hiria II. Jota Lehiaketa eginen dute, Galerian.
- **Zizur Nagusia:** Gaur, 22:00etan, Numidia talde multietnikoak kontzertua eskainiko du herrian. Astelehenean, 22:00etan, Antsoainen izanen dira Numidiakoak.
- **Iruñea:** Asteazkenean, 20:00etatik aurrera, hirugarren adinekoentzako festibala eginen dute zezenplazan Anoz anaiak, Los Panchos eta La Pamplonesarekin.

### BERTSOLARIAK

- **Oitz:** Astelehenean, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña ariko dira herriko plazan, 14:00etan.

### DANTZARIAK

- **Zangoza:** Bihar, Rocamador dantza taldeak urteroko jaia ospatuko du Galerian 20:30etik aurrera.
- **Altsasu:** Etorkizuna Dantza Eskolak antolatuta, Dantzari Txiki Eguna eginen dute igandean herrian.
- **Altsasu:** Asteartean, 19:30ean, gurpildun aulkietan eginiko dantza erakustaldia eginen dute, Foruen plazan.

### ANTZERKIA

- **Castejon:** Castejon de la Barca taldeak *Comeme el coco*, negro antzezlan estreinatuko du bihar 22:00etan, Sarasate zinematokian.

### ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Ana Maria Marinen olio pinturak eta akuarelak igandea arte Elizondoko Bergarenean daude ikusgai.

11:30etik 13:30era eta 10:00etatik 21:00etara.

- **Burlata:** Udaletxeko kultur aretoan Mario Peñalba margolariaren erakusketa igandea arte egonen da zabalik.
- **Barañain:** *Festen inguruko 100 begirada* argazki erakusketa irailaren 15 arte ikus daiteke, Kultur Etxean, asteleheneetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara.
- **Zangoza:** Pablo Hermoso de Mendozaren argazkiak Vallesantoroko erakusketa aretoan ikus daitezke hilaren 20

arte, asteartetik larunbatara, 19:00etatik 21etara eta, jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

- **Iruñea:** Esther Tapiasen oloak hila bukatu arte daude erakusgai Ormolu aretoan (Paulino Caballero, 42).
- **Oieregi:** Bertizko jaurrean, *Antzinako bizimoduaren irudiak* erakusketa ikus daiteke urriaren 15 arte, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:30etik 20:00etara.

### IKASTAROAK

- **Iruñea:** IKako Arturo Kanpion euskaltegiak glotodidaktika ikastaroa antolatu du irailaren 20tik 29ra. Hilaren 15 baino lehen eman behar da izena, 948-222246 telefonon.
- **Eguesibar:** Eguesibarko Udalak pintura, berriztatze, sukaldaritza, jaiotze eta esku lanen ikastaroak antolatu ditu haraneko bizilagunendako. Izena emateko, deitu irailaren 15a baino lehen 948-331611 telefonora.

• IÑAKI VERGARA



## Entzierroan

Bigantxak, behiak edo zezenak. Adardunik gabeko bestak antolatzen ez dakigu; (alkoholik gabeko bestarik ere ez da, baina ardoa ez ohi da egitarau ofizialean paratzen). Entzierroak, txuliaketak edo zezenketak. Kontua da adarren aitzinean bizitza arriskatzea, adrenalina goititzea, eta horren ordainean animalia urduritzea edota hiltzea. Baina gure tradizioaren parte dira, eta hobe da horren aurkako deus ez erratea, tradizioa, gizakiaren askatasunak sortzen duen errepikapena, ezin omen baita aldatu. Irudia Burlatan hartua da. Mugimendua, lastertasuna, dario irudiari; entzierroetako bigantxak, tradizioak ez bezala, atzetik aitzina mugitzen baitira. Zorionez, beraiek ez dute ukuluan gelditzeko askatasunik.